

EUSKADIKO VIII FILOSOFIA OLINPIADA

2026/01/23

DILEMA MORALA:

Ahalegin handia egiten ari zara ikasketetan, oso argi baituzu zer ikasi nahi duzun Batxilergoaren ondoren, eta nota oso altua behar duzu horretarako.

Zure institutuan aplikazio bat ezarri berri da, ikasle bakoitzak ordenagailuarekin egindako lanen jarraipena egiteko. App honen bidez lortutako informazioa ikasleen produktibitatea ebaluatzeko erabiltzen dute irakasleek, eta azken notaren % 20a suposatzen du.

Zure lagunik onena bikaina da filosofia bezalako ikasgaietan. Bere lanak sakonak eta originalak izaten dira, baina app-ak beti ondorioztatzen du bera ez dela efizientea, gogoeta egiten duen bitartean leihotik begiratzeko joera duelako, edo inspirazio kolpeka idazten duelako, itxurazko "aktibitate ezaren" tarte luzeen ondoren.

Ez da zure kasua, app-ak beti ebaluatzen baitu zure lana modu positiboan. Hala ere, bera ez da app-a kaltetzen ari zaion ikasle bakarra.

Ikasle batzuk ikastetxeko zuzendaritzarekin hitz egiten saiatu zarete, baina jasotzen duzuen erantzuna beti bera da: "Sistema ez da perfektua, baina praktikoa eta eraginkorra da. Ez saiatu haize-erroten aurka borrokatzen, kontzentratu zuen ikasketetan".

Ikasle talde batek sabotaje sinboliko bat antolatu du: app-a deskonektatuko dute ikasturteko hirugarren ebaluazioan. Parte hartzea pentsatzen ari zara, baina horrek azken notaren % 20a galtzea ekarriko luke irakasgai guztietan.

Zure familiak hauxe esan dizu: "Ez sartu istiluetan zuri eragiten ez dizun zerbaitengatik; jokatu modu heldu eta arrazionalen".

Zilegi al da etorkizun pertsonala arriskatzea, galdua dirudien kausa batengatik?

Erotuta al daude app-ari aurre egin nahi diotenak, ala besteak dira erosotasunagatik bidegabeko sistema bat onartzean burua galdu dutenak?

Zer erabakiko duzu?

EUSKADIKO VIII FILOSOFIA OLINPIADA

2026/01/23

DILEMA MORAL:

Estás esforzándote mucho en los estudios porque tienes muy claro lo que quieres estudiar después del Bachillerato y necesitas una nota muy alta para ello.

En tu instituto se ha implantado recientemente una aplicación que realiza un seguimiento de la dedicación de cada alumno a las tareas realizadas con el ordenador. La información obtenida a través de esta app la emplean los docentes para evaluar la productividad del alumnado, lo cual supone un 20% de la nota final.

Tu mejor amiga es brillante en materias como filosofía. Sus trabajos son profundos y creativos, pero la app siempre concluye que es ineficiente, porque tiene la tendencia a mirar por la ventana mientras reflexiona, o porque escribe a golpes de inspiración tras ratos largos de aparente "inactividad".

No es tu caso ya que la app siempre evalúa tu trabajo positivamente. Sin embargo, ella no es la única estudiante a la que está perjudicando la app.

El alumnado ha intentado hablar con la dirección del centro, pero la respuesta que obtenéis es siempre la misma: "El sistema no es perfecto pero es práctico y eficaz. No intentéis luchar contra molinos de viento, concentraos en vuestros estudios".

Un grupo de estudiantes planea un acto de sabotaje simbólico desconectando la app durante la tercera evaluación del curso escolar. Te estás planteando participar aunque eso significaría perder el 20% de la nota final en todas las asignaturas.

Cuando se lo cuentas a tu familia, te dicen: "No te metas en líos por algo que no te afecta a ti; compórtate de forma madura y racional".

¿Es lícito arriesgar el futuro personal por una causa que parece perdida?

¿Están locos quienes pretenden enfrentarse a la app o son los demás los que han perdido la cordura al aceptar un sistema injusto por comodidad?

¿Qué decides hacer?